


# MEMORIA 2018





# AURKIBIDEA

<b>I. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza.....</b>	<b>1</b>
Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera .....	2
Berdintasun Batzordea .....	2
<b>II. Jardun ildoak .....</b>	<b>3</b>
1. Prestakuntzan lortutako emaitzak.....	3
1.1. Irakasleentzako prestakuntza presentziala.....	3
1.2. AZPkoentzako prestakuntza presentziala .....	4
1.3. Ikasleentzako prestakuntza .....	4
1.4. Online prestakuntza .....	7
2. Ikerketan lortutako emaitzak.....	15
2.1. UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko AKADEME programa .....	15
2.2. Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria .....	15
2.3. UPV/EHUko Doktorego ikasleak jardunaldietara, biltzarretara eta mintegietara joateko laguntzen deialdia.....	16
3. Unibertsitate bizitza .....	17
3.1. Sexu aldagaia sartzea .....	17
3.2. Hirugarren markagailua .....	17
3.3. Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa .....	17
4. Unibertsitate hedakuntza.....	22
4.1. Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.....	22
4.2. Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean.....	22
4.3. Diru laguntzetarako deialdia UPV/EHUn emakumeen eta gizonen berdintasuna eta genero aniztasuna bultzatzeko sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak antolatzeke.....	24
4.4. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan.....	24
<b>III. Kontratu programa .....</b>	<b>25</b>
<b>I. Eranskina .....</b>	<b>26</b>
<b>II. Eranskina .....</b>	<b>28</b>

# I UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza

UPV/EHU, unibertsitate publiko den heinean, emakume eta gizonen berdintasunarekin konpromiso irmoa du. Horrela adierazten du, besteak beste, Estatutueta 4.3 artikulua: *UPV/EHUk emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUk aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta diferentziaren errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rolak eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkartza parekatua.*

Emakume eta gizonen berdintasun errearen aldeko bide honetan, 2006an UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eratu zen (2006/06/15eko Gobernu Kontseilua) kide bakarreko kargu akademiko bezala. 4/2007 Lege Organikoak unibertsitateak berdintasunerako unitateak martxa jartzera bultzatu baino urte bat lehenago. Zuzendaritza honen sorrera euskal gizarteko inguru eta espazio desberdinetako aukera berdintasunarekin konprometitutako pertsona talde baten, gehienak emakumeak, aurretiazko lanaren emaitza izan zen.

Berdintasunerako Zuzendaritzak 2007an UPV/EHUko Emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin zuen eta emaitza gisa unibertsitateko kolektiboen – ikasle, AZP eta IIP – egoera azalerazi zuen sexuka banatuta unibertsitateko esparru ezberdinetan.

Diagnostiko honen ostean, Unibertsitateak 2009ko maiatzean onartu zuen UPV/EHUko Berdintasun Batzordea sortzea, lehentasunezko funtzio bat esleituz: UPV/EHUko Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Planaren elaborazio prozesua koordinatzea; honek Unibertsitateak berdintasunaren inguruan jarraitu beharreko lan-ildoak zehaztu beharko zituen. Urte bat beranduago, 2010/2013 I. Berdintasun Plan honen elaborazio lanak amaitu ostean, Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen bertan onartu ahal izateko, Unibertsitateak genero berdintasunaren inguruan duen konpromisoa berretsiz. I. Plana exekutatu eta UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektoriala – IIP eta AZP funtzionarioen eta IIP eta AZP laboralen Batzorde Negoziatzaileetatik - Unibertsitateko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana egin eta onartu zen (2014/2017).

Momentuotan UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak prest du Unibertsitateko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2019/2022). Plan hau egiteko orduan sindikatu, batzorde... ekarpenak jaso dira ahalik eta planik osoena lortzeko asmoz. Uneotan plana erredaktaturik dagoen arren, 4.3 ardatza (harreman soziolaboralei dagokiena) Batzorde Intersektorialean sindikatuekin adostea geratuko litzateke. Asmoa III. Berdintasunerako Plana Gobernu Kontseiluan 2019ko lehen hilabeteetan onartzea da.

### Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera

Zuzendaria: Leire Imaz Zubiaur	leire.imaz@ehu.eus	946012172
Teknikaria: Enara Agirre Arrizabalaga	enara.agirre@ehu.eus	946018039
Idazkaria: Ana Isabel Ríos Hernández	anaisabel.rihe@ehu.eus	946012171

### Berdintasun Batzordea

Belen Bengoetxea Rementeria	Arteen eta Giza Zientzien irakasle-ikertzailea
Koldo Telleria Andueza	Arkitektura eta Ingeniaritzako irakasle-ikertzailea
Carmen Manzano Basabe	Zientzietako irakasle-ikertzailea
Jokin Azpiazu Carballo	Gizarte eta Lege Zientzietako irakasle-ikertzailea
Elena Diaz Ereño	Osasun Zientzietako irakasle-ikertzailea
Eneritz Ugarte Velasco	AZPko langilea
Julen Zabala Alonso	AZPko langilea
Unai Villena Camarero	Graduondoko ikaslea
Ainize Etxeberria Murgoitio	Graduko ikaslea

Era berean, **UPV/EHUko ikastegi bakoitzean Berdintasun Batzorde bat dago.**

## II Jardun ildoak

### 1. Prestakuntzan lortutako emaitzak

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburuetako bat, genero ikuspegia eta ikuspegi feminista irakaskuntzaren arloan barnera daitezen sustatzea da. Horretarako, hainbat prestakuntza ikastaro diseinatu eta bultzatu ditugu unibertsitateko kolektibo guztientzat:

#### 1.1.- Irakasleentzako prestakuntza presentziala

UIPPren deialdien bidez, SAE-HELAZek antolatuta, hainbat prestakuntza ekintza eskaini izan zaizkie unibertsitateko irakasleei. Hemen 2018an eskainitakoak:

URTARRILEKO FOPU IKASTAROA					
IKASTAROA	CAMPUSA	ESKAERAK	IZEN-EMATEAK	GAINDITUAK	
				EMAKUMEAK	GIZONAK
Cómo actuar en casos de violencia de género	BIZKAIA	14	9	5	2
Cómo actuar en casos de violencia de género	ARABA eta GIPUZKOA	Bertan behera geldituta			
EKAINEN FOPU IKASTAROA					
Introducción a la coeducación en disciplinas STEAM	BIZKAIA	17	9	7	0
Introducción a la coeducación en disciplinas STEAM	ARABA eta GIPUZKOA	Bertan behera geldituta			
Feminismo para no feministas	BIZKAIA, ARABA eta GIPUZKOA	Bertan behera geldituta			
El género y las personas trans en el espacio universitario	BIZKAIA	Bertan behera geldituta			

Ikusten denez, 2018an eskainitako prestakuntza ekintzek oso arrakasta txikia izan dute eta, hurrengo edizioei begira, gomendagarria izango litzateke ahalegin guztiak irakasleei benetan interesatzen zaizkien prestakuntza ikastaroetan jartzea; batik bat,

aplikazio praktikoagoa badute, lotura gehiago aurkeztuz beraien jardun akademikoarekin.

### 1.2.- AZPkoentzako prestakuntza presentziala

2014tik urtero prestakuntza desberdinak eskaini izan ohi dira UPV/EHUko AZPko kideentzat. Hala ere, 2018an ez da modalitate honetako formakuntza espezifikorik eskaini. Urte honetan AZPko langileei eskaini zaizkien formakuntza ekintzak unibertsitate osorako eskainitako online ikastaroak izan dira.

### 1.3.- Ikasleentzako prestakuntza

Berdintasunerako Zuzendaritzak genero ikuspegia bultzatu nahi du ikasleek aurkeztutako gradu (GRAL) eta master (MAL) amaierako lanetan. Horretarako, 2018an, aurreko urteetan bezalaxe, gradu eta master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeagatik sari hauek eman zaizkie UPV/EHUko ikasleei:

#### **Genero ikuspegia gradu amaierako lanetan barne hartzearen Francisca de Aculodi saria**

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2014-2017) 1.4. 2 puntuari aurreikusitako ekintza betez, *Genero ikuspegia barneratzen duten UPV/EHUko lan onenei emandako Francisca de Aculodi -gradu amaiera- (...) sariak errotzea*, alegia, UPV/EHUK FRANCISCA DE ACULODI sariaren V. ediziorako deialdia egiten du gradu amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

2018ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Francisca de Aculodi sariaren IV. Edizioko sariak banatu ziren (2017an defendatutako GRALak) guztira 54 GRAL aurkeztu ziren. 2018ko udazkenean sariaren V. Edizioko lanak aurkeztu dira, guztira 31, eta hauen epaia 2019an izango da. Hemen aurkeztutako GRALen banaketa:

AURKEZTUTAKO GRADU AMAIERAKO LANAK		
	IV. EDIZIOA	V. EDIZIOA
Gizarte eta Lege Zientziak	37	20
Arte eta Humanitateak	15	8
Osasun Zientziak	1	3
Ingeniaritza eta Arkitektura	1	0
Zientziak	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>31</b>

Ikusten denez, oraindik ere genero ikuspegia disziplina tradizionaletan txertatu ohi da. Jakintza alor maskulinizatuagoetan nekez aurkezten da lanik. Horretaz gain, aipatzekoa da IV. Ediziotik V. Ediziora izandako hautagaien jaitsiera. Aurten beste urte batzuetan baino lehenago ireki da epea eta publizitatea ere lehenago egin denez, zentro batzuetan nahastu egin dira datekin.

Ondorengo taulan ikus daitezke Francisca de Aculodi sariko V. Edizioko sarituak:

FRANCISCA DE ACULODI SARIKO IV. EDIZIOKO SARIDUNAK			
Gizarte eta Lege Zientziak	<b>Euskara</b>	<i>Amatasuna eta kartzelak: euskal emakume batzuen esperientziak espainiako karteletan</i>	Garazi Otsoa Eribeko Uriarte.
		<b>Accesit:</b> Ernai gazte antolakundearen urrats feminista: Aldaketaren nolakotasuna aztertzen	Maider Galardi Fernandez De Agirre.
	<b>Gaztelania</b>	<i>Mordiendo el aire kalis/romis mujeres caminando hacia la igualdad</i>	Helena Bayona Carlos.
Arte eta Giza Zientziak	<b>Euskara</b>	<i>Sexua eta generoa Judith Butlerren lanean: (des)eraikuntzari buruz</i>	Amaia Elejabarrieta Uribe
	<b>Gaztelania</b>	<i>La feminidad en el arte de Waterhouse. Ofelia y la dama de Shalott</i>	Lara Goikoetxea Armijos.
Osasun Zientziak	<b>Euskara</b>	Hutsik	
	<b>Gaztelania</b>	Hutsik	
Ingeniaritza eta Arkitektura	<b>Euskara</b>	Hutsik	
	<b>Gaztelania</b>	Hutsik	

## UPV/EHUko Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen Maria Goyri saria

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2014-2017) 1.4.2 puntuari aurreikusitako ekintza betez, *Genero ikuspegia barneratzen duten UPV/EHUko lan onenei emandako (...) María Goyri -master amaiera- sariak errotzea*, alegia, UPV/EHUK MARIA GOYRI sariaren VII. ediziorako deialdia egiten du master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

<b>AURKEZTUTAKO MASTER AMAIERAKO LANAK</b>		
	<b>Guztira</b>	<b>Jakintza arloen arabera</b>
<b>VI. Edizioa (2016/2017)</b>	17	10 Gizarte eta Lege Zientziak 6 Arte eta Giza Zientziak 1 Osasun Zientziak
<b>VII. Edizioa (2016/2017)</b>	6	3 Gizarte eta Lege Zientziak 3 Arte eta Giza Zientziak

Ondorengo taulan 2018ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean saritutako lanak:

<b>MARIA GOYRI SARIKO VI. EDIZIOKO SARIDUNAK</b>	
<b>Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai genero ikuspegitik</b>	Ane Labaka Mayo
<b>Accesit:</b>	
- Emakume ezkonduak fabriketan: arrotz izatetik nor izatera. 1970eko hamarkadan Ormaiztegi lantegietan egindako urratsaren gakoak	Elixabete Garmendia Lasa
- La pasividad femenina como canon feminicida representacional	Sofia Roda Onofri
- De Ms. Pac-Man a Aloy: La imagen de las mujeres en los videojuegos	Verónica Fernández Sainz
- Anarquismo doméstico. Soñé que mi piso estaba limpio	Anna Mezquita Sánchez
- El estatus científico de la disciplina del trabajo social. Trabajo social y su relación con la feminización en la profesión: vías posibles para romper con el "techo de cristal epistemológico"	Andrea De La Torre López
- Zientzia eta generoa	Uxue Sánchez Garmendia

Maria Goyri saria finkatuta dago, eta gero eta ikasle gehiagok parte hartzen dute. Francisca De Aculodi sarian bezala, hautagai gehienak Gizarte eta Lege Zientziak eta Humanitateen arlokoak dira; gutxien feminizatutako diziplinetan, ordea, ia ez da lanik aurkezten.



Francisca de Aculodi sarien kasuan bezala, hemen ere jaitsiera nabarmena hauteman dugu VI. Ediziotik VII. Ediziora.

#### 1.4.- Online prestakuntza

II. Berdintasun Planaren ardatzei jarraituta, 2017an hainbat online prestakuntza modulu abiarazi ziren unibertsitateko irakasle-ikertzaile, AZPko langile eta ikasleentzat: prestakuntza, berdin-berdina hiru kolektiborentzat, ikasleei kreditu aitortza ofiziala eskainiz. Prestakuntza ekintza hauek aurrera eramateko kanpoko hainbat entitate aukeratu ziren.

#### Hizkuntza inklusiboa

*Pikara Magazine* komunikabide digitalak *Hizkuntza Inklusiboa* ikastaroa prestatu zuen euskaraz zein gaztelaniaz. Ebaluazio panela aipatutako komunikabideko profesionalen eta UPV/EHUko irakasleen zegoen osatuta.

*Izendatzen ez dena ez da existitzen* lemapean, kazetari, filologo pedagogo eta antropologoek hizkuntzaren garrantzia azpimarratu dute kultura patriarkalaren elementuak hedatzeko orduan. Bertan gizona erreferentziazko subjektu bilakatzen da eta emakumea alteritatea. Ekarpen teoriko hori, erakunde, erakunde sozial, enpresa, sindikatu, ikastetxe edota komunikabideen ekintzetara gehitu da giden edo prestakuntzen bitartez. Hala ere, ekintza hauek barregarri utziarazi dira behin baino gehiagotan, baita hizkuntzako akademiko esanguratsuen partetik ere.



Hizkuntza inklusiboko ikastaroa pack bateko parte zen, gida oso, gida azkar eta bideo batez gain. Honekin, hizkuntza inklusiboaren erabilera erraztu nahi da gure unibertsitatean. 2018/2019 ikasturtearen hasieran unibertsitate osora hedatu dira bai gida azkarrak baita gida osoak ere, komunitateko kide denek erreminta baliagarri hau eskura izan dezaten.

## Hezkidetzaren alde busti!

*Hezkidetzaren alde busti!* ikastarorako *Hezkidetzaren esku hartzen* ikastaroa antolatzen duten hezkuntzako profesionalekin jarri ginen harremanetan. Profesional hauek, ikastaroko materiala formatu txikiago batera moldatzeaz gain, irakasle eta tutore lanak ere egin zituzten. Ebaluazio panelean, aipatutako profesionalak eta UPV/EHUko irakasleak egon dira.

Ikastaro honen helburua etorkizunean adin txikikoekin lan egingo duten ikasleak hezkidetzaren formatzea da. Hori dela eta, fakultate konkretu batzuetako ikasleei baino ez zaie eskaini: Letrak, Hezkuntza, Hezkuntza eta Kirola, HEFA eta Lan Harremanak eta Gizarte Langintza. Ikastaro hau, besteak ez bezala, euskaraz bakarrik eskaini da eta 75 orduko iraupena izan du.



## Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak

Bi ikastaro hauek, euskaraz zein gaztelaniaz, Emakunderekin batera egin dira. Emakundek materialak prestatu dituen bitartean, UPV/EHU ikasle parte-hartzaileez eta plataformaz arduratu da. Irakasleen panela UPV/EHU barruko eta kanpoko irakasleez egon da osatuta.

*Emakume eta gizonen berdintasuna* ikastaroak ikasleek errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ulertu ahal izateko ezagutza teoriko-praktikoak lortzea izan du helburu. Gainera, genero-diskriminazioak hautematea eta horiek gainditzeko proposamenetan aurrera egitea ahalbidetuko duten askotariko tresna teoriko eta metodologikoetan trebatu beharko dira. Horretaz gain, mugimendu feministaren historia ezagutzeko nahi da, egungo egoera ulertzeko ezinbesteko marko gisa.



*Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak* ikastaroak ikasleek gure gizartean maskulinitasunaren eraikuntza soziala aztertzeko gaitasun teoriko eta praktikoak garatzea izan du helburu. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egitea da asmoa, eta, horretarako, errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak eta errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak eskuratu behar dira. Gure gizarteetan dauden maskulinitasunaren adierazpen anitzak ere jorratuko dira, baita horrek emakumeei eta gizonei beraiei ekartzen dizkien ondorioak ere.






### I Online ikastaroen I. Edizioa, 2017/2018 ikasturtea


ONLINE IKASTAROA	NORENTZAT	IRAUPENA	ESKAINITAKO PLAZA KOPURUA	IZEN-EMATEAK			AKREDITATUTAKO PERTSONAK		
				EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK
<b>Emakume eta gizonen berdintasuna (euskaraz eta gaztelaniaz)</b>	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	400	492	130	5	228	51	1
<b>Hizkuntza inklusiboa (euskaraz eta gaztelaniaz)</b>	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	400	492	123	10	188	41	4
<b>Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak (euskaraz eta gaztelaniaz)</b>	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	400	348	142	0	145	56	0
<b>Hezkidetzaren alde Busti!</b>	Ikasleentzat (HEFA, Hezkuntza, Kirola, Gizarte Langintza eta Psikologia)	75 ordu	200	165	28	7	99	14	5
<b>GUZTIRA</b>			<b>1400</b>	<b>1497</b>	<b>423</b>	<b>22</b>	<b>660</b>	<b>162</b>	<b>10</b>

## BERDINTASUNA




**1 Irudia: Berdintasuna ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa**

## HIZKUNTZA INKLUSIBOA




**2 Irudia: Hizkuntza Inklusiboa ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa**


## MASKULINITATEAK



**3 Irudia: Maskulinitateak ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa**



4 Irudia: Hezkidetzan ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa




5 Irudia: Ikastaro guztietako akreditatutako pertsonen ehunekoa



## II Online ikastaroen II. Edizioa, 2018/2019 ikasturtea, udazkena


ONLINE IKASTAROA	NORENTZAT	IRAUPENA	ESKAINITAKO PLAZA KOPURUA	IZEN-EMATEAK			AKREDITATUTAKO PERTSONAK		
				EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK
<b>Emakume eta gizonen berdintasuna (euskaraz eta gaztelaniaz)</b>	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	200	433	89	8	89	17	0
<b>Hizkuntza inklusiboa (euskaraz eta gaztelaniaz)</b>	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	200	413	93	12	86	21	2
<b>Maskulinitateak . Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak (euskaraz eta gaztelaniaz)</b>	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	200	275	84	8	65	24	2
<b>Hezkidetzaren alde Busti!</b>	Ikasleentzat (HEFA, Hezkuntza, Kirola, Gizarte Langintza eta Psikologia)	75 ordu	100	121	13	5	38	5	3
<b>GUZTIRA</b>			<b>700</b>	<b>1242</b>	<b>279</b>	<b>33</b>	<b>278</b>	<b>67</b>	<b>7</b>

## LENGUAJE INCLUSIVO



**6 Irudia: Lenguaje Inclusivo ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa**

## HIZKUNTZA INKLUSIBOA



**7 Irudia: Hizkuntza Inklusiboa ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa**

Aurreko bi grafikoetan ikus daitekeen bezala, ikastaroa akreditatu duten gehienak ikasleak dira bai euskarazkoan baita gaztelaniazkoan ere. Aipatzekoa da gaztelaniazko edizioan AZPkoen portzentai handi batek gainditu duela ikastaroa eta euskarazkoan talde honetako inork ere ez.



## 2. Ikerketan lortutako emaitzak

Hainbat azterlanek eta UPV/EHUko ikerketen esparruan emakumeen eta gizonen parte hartzeari buruzko diagnostikoak (2007-2011) berak erakutsi dute ikerketetan desberdina dela emakumeen eta gizonen egoera. Horren arabera, dagozkion neurriak hartu beharko dira, berdintasunerako bidean aurrera egiteko.

Ekintza positibo bezala ikerketa proiektuak aipa genitzake, berdintasunaren arloan eta gutxiegi ordezkaturik dauden beste batzuetan, 2 puntu gehiago ematen dira, Ikertzaile Nagusia emakumea bada.

Oinarri honetatik abiatuta, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo ekintzak jasotzen ditu:

### 2.1.- UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko **AKADEME** programa

Berdintasunerako Zuzendaritzak, HELAZekin batera, **AKADEME programa** ezarri eta eskaintzen du 2015/2016 ikasturtean, UPV/EHUko emakumezko akademikoen lidergoa bultzatzeko. Haren helburu nagusia emakume akademikoen lidergo gaitasunak hobetzea da, eta parte hartzaileen arteko babes sare batean parte har dezaten sustatzea, non erantzukizuneko lanpostuetan sartzeko edo haietan irauteko ahalduz kolektiboa motibatu eta sustatuko den. Orain arte Akademe programan 133 emakumek hartu dute parte.



Akademe programaren laugarren edizioa 2018ko urriaren 17an hasi zen eta 2019ko otsailaren 13an amaituko da. Bertan bi talde osatu dira Leioan eta orotara 28 emakume ari dira parte hartzen.

### 2.2.- Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren **Micaela Portilla Saria**

Ikerketan genero ikuspegia bultzatzeko, baita genero ikerketak eta ikerketa feministak ere, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Planaren 2.2.7. - *Ikasketa feministei edo generokoei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria finkatzea*.- ekintza betetzearren, UPV/EHUk MICAELA PORTILLA VITORIA Sariaren V ediziorako deialdia egiten du ikasketa feministei eta genero ikasketei buruzko UPV/EHUko tesi onenarentzat.

2018ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Micaela Portilla Sariaren V. Edizioko saria banatu zen 8 partehartzailearen artean. Aurten VI. Edizioko deialdia atera da eta 10 partehartzaile izan ditu, dena den, edizio honen irabazleak saria 2019ko ekitaldian jasoko du. 2013tik banatzen da eta UPV/EHU ikasketa feminista edo genero ikerketen gaineko tesi onenak saritzen ditu. Urte hauetan zehar **36 hautagai aurkeztu dira orotara**.

Micaela Portilla sariko azken bi irabazleak		
Edizioa	Tesia	Egilea
V. Edizioa (2016)	<i>Arte-ekoizpen feministak euskal testuinguru kulturean. Arte-instituzio garaikideetako praktika: Arteleku zentroa eta Montehermoso Kulturunea (1997-2012)</i>	Maidar Zilbeti Pérez
VI. Edizioa (2017)	<i>La triple presencia. Estudio sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación sociopolítica</i>	Marina Sagastizabal Emilio-Yus

### 2.3.- UPV/EHUko Doktorego ikasleak jardunaldietara, biltzarretara eta mintegietara joateko laguntzen deialdia

Deialdi honen helburua ikerketa feministak eta generokoak sustatzea da, UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako indarrean dagoen planak adierazten duen bezala.

Deialdi honek **jardunaldietara, biltzarretara edo mintegietara joateko (genero ikuspegia txertatzen duen edo/eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero identitateari buruzkoa den txosten bat, komunikazio bat, poster bat, etab. aurkeztuta) laguntza** barne hartzen ditu, doktorego tesi batekin zerikusia duten lanak egiteko eta/edo ezagutarazteko helburuarekin. Doktorego tesiak UPV/EHU izena emanda egon beharko du eta ikasketa feministen eta generokoen arloko ikerketa barne hartu beharko du, bai eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero identitateari buruzkoak ere. Arreta berezia eskainiko zaie ikerketa feminista eta generoko gutxi dituzten ezagutza arloei: **irakaskuntza teknikoak, zientzia esperimentalak eta osasun zientziak**.

Aurtengo edizioan, **2018** urteari dagokionean, 47 laguntza onartu dira, guztira **20.094'57 euro** emanez.

I Eranskinean zerrendatuta daude 2018an laguntza eman diegun ikasleen zerrenda.

## 3. Unibertsitate bizitza

### 3.1.- Sexu aldagaia sartzea

Berdintasunerako Zuzendaritzak Unibertsitatea zenbakitan dokumentuak biltzen dituen datuak taldekatzen diren 12 atalen berrikuspena egin zuen, 2015eko otsailean. Ondoren, hobetzeko hainbat iradokizun biltzen zituen txosten bat idatzi zuen, datu garrantzitsuak bermatzeko premiari dagokionez, eta hizkera ez-sexista erabiltzeko gomendioak ere erantsi zituen. Aurten berretsi egin da datuak sexu aldagaia aintzat hartuta biltzen direla beti, eta normalduta dagoela sexu aldagaia duten datuen bilketa eta transferentzia.

### 3.2.- Hirugarren markagailua

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2017ko azaroaren 2an, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordearen proposamenari jarraikiz, UPV/EHUko dokumentu ofizialetan sexu-generoa identifikatzeko **HIRUGARREN MARKAGAILU** (Ez-Bitarrarena) bat jartzea onartu zuenetik lan-ildo berri bat zabaldu da Berdintasunerako Zuzendaritzarentzat. LGTB kolektiboetako ikasleen beharizanei erantzunez, lehen pausu gisa, **KOMUN MISTO** gisa identifikatu daitezkeen komunak identifikatzeari ekin zaio.

2018ko otsailetik UPV/EHUko zentro guztiak begiratu dira bertako komunen egoera aztertzeko. Abenduan jada txostena prest dago zentro guztietako **KOMUN MISTO**en zerrendarekin eta 2019an zehar errotuluen aldaketa egingo dela aurrakusten da.

### 3.3.- Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza 2017tik indarrean zegoen UPV/EHUko Genero Indarkerien Protokoloa eraberritzeko prozesuan hasi zen. Talde misto bat osatu zen lan honetarako unibertsitateko ikasle, irakasle eta AZPkoek osatuta. Beste unibertsitate batzuetako protokoloak aztertzeaz gain, talde honek entzute eta parte-hartze prozesu bat martxan jarri zuen UPV/EHUen.

**Entzuteko eta parte-hartzeko talde dinamiketan, hogeitasei saio** egin ziren irakasle-ikertzaile, AZP eta ikasleentzat, hiru campusetan, eta, guztira, **300 bat pertsonak** parte hartu zuten. Saio horietan bildutako informazioarekin, genero indarkerien aurkako UPV/EHUren Protokoloa idazteari ekin zitzaion.



Azken bertsioa lortu arte hainbat berrikuspen egin ostean, 2018ko ekainaren 1ean Batzorde Intersektorialak onartu zuen aho-batez. Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 7an onartu zuen protokoloa eta urte bereko ekainaren 14an aurkeztu zen unibertsitate osoaren aurrean Zientzia eta Teknologia Fakultateko Paraninfoan ospatutako ekitaldi instituzionalean.



**8 Irudia: Protokoloaren aurkezpen ekitaldia**



**9 Irudia: Ikasleak entzute eta parte-hartze saioetan**

Segurtasun eta osasun intercampus batzordearen bileraren ostean, 2018ko urriaren 22an, batzorde honek sexu eta sexuagatiko jazarpenaren inguruan zituen eskuduntzak Genero indarkeriazko kasuen arretarako batzordeari pasatu dizkio, Hirugarren xedapen gehigarriaren arabera. Beraz, ofizialki, protokoloa egun horretan sartzen da indarrean.

Genero Indarkeriazko arretarako batzordea 2018 urte amaieran hedatu da eta protokoloko 7. artikuluaen arabera *Organo hau batzorde bat izango da, honako hauek kide izango dituena: Berdintasun teknikari bat, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuko pertsona bat, Arreta Psikologikorako Zerbitzuko pertsona bat eta UPV/EHUko segurtasunaren arloko zuzendaria. Salatzaileak UPV/EHUekin lan harremana izanez gero, sindikatuen ordezkari bat ere izango da batzordeko kide. Batzordea osatzen duten kideek genero indarkeriei aurre egiteko prestakuntza espezifikoa jasoko dute. Batzorde honen koordinazioa UPV/EHUko Berdintasun teknikariaren esku egongo da.* Protokoloak agintzen duen bezala, batzorde honetako kide guztiek formakuntza espezifiko bat jasoko dute eta hau 2019ko urtarrilean zehar egingo da.

Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloko Atariko Printzipioen deklarazioan datorren bezala *UPV/EHUK konpromisoa hartzen du protokolo honen bidez genero indarkeriek sor ditzaketan arazoei aurre egiteko, beharrezkoak*

*diren berme guztiakin eta aintzat hartuta —protokoloa idatzi, interpretatu eta aplikatzerakoan— pertsona guztiak laneko eta ikasteko giroetan indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubideari buruzko nazioarteko, Europako erkidegoko, estatuko, autonomia erkidegoko eta unibertsitateko arauak.*

Nahiz eta Genero Indarkeriazko arretarako batzordea urte amaieran eratu, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzatik lehenago ere indarkeria kasuak artatu dira, beti ere indarkeria jasan duen pertsonaren beharretara egokitu nahian. Ondorengo taulan laburbilduta daude 2018ko urtarriletik abenduaren 19a arte artatutako kasuak:

	<b>Salatzaileak</b>		
	Ikasleak	AZP	IIP
<b>Indarkeria fisikoa</b>	10	1	0
<b>Sexu jazarpena</b>	5	0	0
<b>Indarkeria psikologikoa</b>	3	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>18</b>	<b>1</b>	<b>0</b>


#### **10 Irudia: Artatutako indarkeria kasuak**

Orain dela gutxi *Pikara Magazinek*<sup>1</sup> argitaratutako ikerketa batean ageri da, espainiar Estatuko unibertsitate publiko guztiak ikertuta artatutako genero indarkeria kasuei dagokienez, UPV/EHU salaketa gehien jaso dituenen artean aurkitzen dela. Datu hau positiboa da, agerian uzten du unibertsitateko kolektiboek genero indarkerien agerpenak salatzeke predisposizioa handiagoa dutela, bereziki ikasleen artean. Uste dugu, igoera hau UPV/EHUa aurrera eramandako berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko politika aktiboek eragindakoa dela. Politika hauek zenbat eta eraginkorragoak izan, orduan eta salaketa gehiago jartzen dute indarkeria jasaten duten pertsonak.


1

[https://posta.ehu.es/owa/redir.aspx?C=hPm6mUul05\\_lmIYZgjZ0DdAKJCIP54JOOrxxS3rjWgkYc4SxIEHWCA.&URL=ht tp%3a%2f%2fwww.pikaramagazine.com%2f2018%2f04%2fmas-de-la-mitad-de-las-universidades-publicas-espanolas-registran-casos-de-acoso%2f](https://posta.ehu.es/owa/redir.aspx?C=hPm6mUul05_lmIYZgjZ0DdAKJCIP54JOOrxxS3rjWgkYc4SxIEHWCA.&URL=ht tp%3a%2f%2fwww.pikaramagazine.com%2f2018%2f04%2fmas-de-la-mitad-de-las-universidades-publicas-espanolas-registran-casos-de-acoso%2f)

- **UPV/EHUko Genero indarkerien aurkako protokoloko kartela egiteko sariaren I. Edizioaren deialdia:** Genero Indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa ezagutarazi eta ikasleen artean zabaltzeko, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo deialdia antolatzen du (5. Artikuluaren arabera *Hartu beharreko neurriak*). Honen helburua Genero Indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa ikasleen artean ezagutzera ematea da, hauek baitira indarkeria kasu gehien bizi dituztenak. Lehiaketa honek arrakasta handia izan du orotara **29 kartel** aurkeztu baitira. Hauen sari banaketa azaroaren 23an ospatutako Azaroaren 25eko ekitaldian izan zen. Lehiaketa honetan bi sari banatu ziren:
  - **Epaimahaiaren saria:** Ane Seijas Garzón
  - **Publikoaren saria:** Angela Lozano Álvarez eta Raquel Gutiérrez García



**11 Irudia: Epaimahaiaren saria jaso duen kartela**



**12 Irudia: Publikoaren saria jaso duen kartela**

- **INDARTU. Genero indarkeriak prebenitzeko programa UPV/EHU:** Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloaren Atarikoan esaten denez, unibertsitatearen helburua da *unibertsitatean giro segurua mantentzea eta sustatzea UPV/EHU osatzen duten pertsona guztientzat, genero indarkerietatik at*. Era berean, azpimarratzen da *unibertsitateak ez du[ela] genero indarkerien inongo adierazpenik onartuko eta bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu[ela] jarrera eta portaera horiei aurre egiteko*. UPV/EHUrentzat genero indarkeriaren eremuan sartzen diren jarrerak eraso egiten diote pertsonen berdintasun eskubideari eta osotasun fisikoari, psikikoari eta duintasunari. Protokoloaren bidez, *unibertsitateak konpromisoa hartzen du jarrera horiek prebenitzeko eta horiei irmo eta sendo aurre egiteko*.

Horretarako, Protokoloak biltzen ditu bai prebentzio neurriak eta bai indarkeria kasuak gertatzen direnean jarraitu beharreko prozedura. Zehazki, prebentzio neurrien helburua da genero indarkeriazko ekintzak gerta daitezela eragozte, eta horretarako *unibertsitateko kideak informatzeko, sentsibilizatzeko, trebatzeko eta prestatzeko estrategiak* diseinatu eta ezartzen ditu. Neurri horiek genero berdintasun eta aniztasunarekiko eta sexu orientazioarekiko errespetuaren kultura sustatu behar dute, baita barne hartzailea eta indarkeriarik gabekoa izango den giroa sortu ere.

Testuinguru honetan aurkezten dugu esku hartze psikosozialerako **«INDARTU»** PROGRAMA, UPV/EHUko andrezko ikasle gazteekin gauzatzekoa. **Lehen edizio pilotu bat** egitea proposatzen dugu, Bizkaiko Campusean, 2018/19 ikasturteko bigarren lauhilekoan, hainbat ikastegitako bigarren mailako emakumeekin, jakintza adar desberdinetako ikasleak harremanetan jar daitezten, etorkizunean genero indarkerien kontrako ikasleen sare bat sortzeari begira. Edizio pilotu honetan *bi talde* eratuko dira: bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz. Talde bakoitzak 15 kide izango ditu, ikastegi desberdinetakoak eta denak ere bigarren mailakoak.

Pedagogia feministetan oinarritutako metodologia bat erabiliko da, non esperientziaren bidezko ikaskuntzaren garrantzia aitortzen den. Gainera, zaintzaren etika ere txertatuko da, zeinaren arabera pertsonak bere osoan hartzen diren aintzat, beren alderdi guztiekin —fisikoa, kognitiboa, emozionala eta soziala— eta bestelako bideak erabiltzen diren jakintza sortu eta transmititzeko (antzerkia, irakurketak, batzarrak eta abar).

Indartu programa 2019ko otsailaren 5eko aurkezpen saioarekin hasi eta 2019ko apirilaren 9ko amaiera saioarekin bukatuko da; tartean taldekako 8 saio izango dituelarik.

## 4. Unibertsitate hedakuntza

### 4.1.- Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea

UPV/EHUko organo kolegiatuen amaierako osaera orekatua (gizonak eta emakumeak) lortzea ahalbidetuko duten formulak aztertzen hasi gara, arautegiaren aldaketak proposatzeko asmoarekin. Zehazki, puntu honetan **kremailera erako zerrendei** egiten diegu erreferentzia, UPV/EHUko Hauteskunde Arautegi Orokorreko 5.4 artikuluan arautzean direnak. Organo kolegiatu batzuetan amaierako osaera ez parekidea sortu duten ohiz kanpoko desbideratzeak hauteman dira txandakako hurrenkera hau aplikatu ostean. Disfuntzio hauek ekiditeko, Berdintasunerako Zuzendaritzak Txosten bat prestatu zuen 2017ko martxoa eta apirilean zehar amaierako parekidetasuna ahalbidetzeko beharrezkoak diren arautegiaren aldaketak proposatuz. Zerbitzu Juridikoen amaierako txostena aztertuta, azken proposamena adostea eta Gobernu Kontseilura helaraztea geratzen da, bertan onartu ahal izateko.

Berdintasunerako Zuzendaritzak UPV/EHUko ikastegietako berdintasun batzordeen jarraipena egin, eta haiekin harremanetan egoten da, eta ekimen guztietan parte har dezaten bultzatzen du.

### 4.2.- Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean

- **Martxoaren 8a:** 2018an ekitaldi akademiko instituzional honen bederatzigarren edizioa ospatu zen **Arabako Campuseko Letren Fakultatean Giza Zientziak: genero berdintasuna eraikitzen** lemapean.

Ekitaldi honetan Francisca de Aculodi, Maria Goyri eta Micaela Portilla sariak banatzen dira Errektorearen eskutik.



**13 Irudia: 2018ko Martxoaren 8ko mahaia eta sarituak**



- **Martxa Lila:** Urtero, Leioan (Bizkaiko Campusa) martxa bat egiten da, non unibertsitateko kide guztiak daude parte hartzera gonbidatuta, lila koloreko objektu bat eramanez.
- **A25:** UPV/EHUk Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen du. Azken edizioan *UPV/EHUko genero indarkerien aurkako protokoloko kartela egiteko sariaren I. edizioaren deialdiaren sari banaketa* ekitaldia ospatu zen Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean (Leioan)



- **Emakunderekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea:** 2018ko uztailaren 2an, UPV/EHUren eta Emakunderen arteko lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu zen. Horren bidez, bi erakundeen arteko lankidetzaren sustatu nahi da, bereziki prestakuntza arloan. Sinadura ekitaldian egindako prentsaurrekoa UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kultur Gintzaren arloko Errektoreordeak, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendariak eta Emakundeko Zuzendariak eman zuten.



**14 Irudia: Berdintasunerako Zuzendaria, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kultur Gintzaren arloko Errektoreordea eta Emakundeko Zuzendariak sinaduraren unean.**

#### 4.3.- Diru laguntzetarako deialdia UPV/EHUn emakumeen eta gizonen berdintasuna eta genero aniztasuna bultzatzeko sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak antolatzeko

Laguntza hauek igotzen joan dira urtez urte, egindako jarduerari dagokienez, eta horietan izandako parte hartzea nahikoa egonkorra izan da. Hori gertatu da, neurri batean, jarduera gero eta espezifikoagoak antolatzen direlako, genero ikuspegian gero eta gehiago sakontzeko asmoz. Beraz, joera nagusia hau da: "publiko guztiarentzako" jarduera masibo gutxiago antolatzea, eta sakontzeko eta ikertzeko jarduera gehiago.

Deialdi honetako 2018 urteko edizioan, 29 eskaera jaso dira, 27 emakume eta 2 gizon, guztira 20.137'81 euro eman direlarik. Eskaeren kopurua nabarmen jaitsi da, bereziki, tramitazioan burokratizazio gehiegi egoteak eraginda.

Orotara ia **3.400 pertsonak** parte hartu dute antolatutako jardueretan.

II Eranskinean zerrendatuta dauden 2018an finantzatu ditugun jardunaldi, biltzar edo mintegiak eta bertaratu diren parte-hartzaileen kopurua.

#### 4.4.- UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan

2018an UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak **23 agerraldi** izan ditu komunikabideetan.

UPV/EHUn aurrera eramandako berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko politika aktiboak gero eta espazio gehiago dute komunikabideetan. Zuzendaritzak eta Errektoreordetzak gero eta agerpen gehiago izan dute komunikabideetan eta horrek, zalantzarik gabe, egindako lanari zabalkunde gehiago emateko balio izan du. Zabalkunde horri esker ekimen berri gehiago arrakastaz aurrera eramatea ahalbidetzen du, harrera maila ere handiago izanik.



15 Irudia: Leire Imaz, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaria *hiruka* astekariaren azalean

## III Kontratu programa

<b>2018KO GASTUAREN EXEKUZIOA</b>	
<b>2018 KONTRATU PROGRAMA (B31)</b>	
<b>UPV/EHUKO BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA 3938 ORGANIKA</b>	
Online ikastaroak	27.288'28€
LANKU "Bakean dagoena bakean utzi" emanaldia	811'72€
Protokoloko kartelaren lehiaketako epaimahaiaren saria	600€
Protokoloko kartelaren lehiaketako publikoaren saria	300€
<b>EXEKUTATUTAKOIA GUZTIRA</b>	<b>29.000€</b>

## I Eranskina

DOKTOREGAIA	JARDUNALDIA	NON
Maria Dosil Santamaria	<b>Encuentro científico intermedio internacional del comité de las FES de sociología del género (21, 22 y 23 de MARZO)</b>	Valentzia
Enara García Otero	<b>Jean Piaget Society 48th Annual conference 2018</b>	Amsterdam
Ander Azkarate Morales	<b>IX Congreso internacional de psicología y educación</b>	Logroño
Izaskun Zuazu Bermejo	<b>27th IAFFE Annual Conference. Feminis debates on migration, inequalities and resistance</b>	New York
Veronica Fernandez Sainz	<b>IV Conferencia Internacional Género y Comunicación</b>	Sevilla
Maria Dosil Santamaria	<b>IX Congreso internacional de psicología y educación</b>	Logroño
Leire Lizarzategui Elu	<b>Institute of Classical Studies postgraduate work-in-progress seminar</b>	Londres
Nagore Martinez Merino	<b>VI Congreso Internacional de Actividad Física y Deportes</b>	Zaragoza
Gabriela Muñagorri Mendiola	<b>Congreso Internacional, Moda e Potere</b>	Erroma
Iratxe Perez Urdiales	<b>IX Aula de Debate de jóvenes Investigador@s en Temáticas de Género 2018</b>	Madril
Blanca Rosa Olalde Lopez de Arechavaleta	<b>IX Congreso Internacional de Psicología y Educación (CIPE 18)</b>	Logroño
Iñigo Galdeano Perez	<b>MMOWO symposium 2018 international conference. Women´s creativity since the modern movement (1918-2018) toward a new perception and reception</b>	Turin (Italia)
Natalia Cordero Ruis	<b>1st Meeting in Translational Pharmacology</b>	Santiago de Compostela
Linda Della Ragione	<b>XIX ISA WORLD CONGRESS OF SOCIOLOGY</b>	Toronto (Kanada)
Lorena Relloso Arinas	<b>IV International Conference on Gender and Communication</b>	Sevilla
Noelia Maeso Gomez	<b>IV International Conference on Gender and Communication</b>	Sevilla

Nerea Larruzea Urkixo	<b>Congreso Mujeres investigadoras e investigación sobre mujeres en las universidades ibéricas</b>	Salamaka
Monica Natalia Acosta Garcia	<b>RCSL-SDJ Lisbon 2018 Meeting.</b>	Lisboa
Ander Azkarate Morales	<b>44th Annual AME Conference 2018 Barcelona</b>	Bartzelona
Unai Azcarate Jimenez	<b>Congreso Internacional NSCA 2018</b>	Madril
Sebastian Piedrabuena Fernandez	<b>XX: Congreso Internacional de Arte Rupestre</b>	Valentzia
Maria Esther Guzman Mariscal	<b>8ª Conferencia lationamericana y caribeña de ciencias sociales</b>	Buenos Aires
Aitor Renteria Dominguez	<b>THE LANCET Summit</b>	Bartzelona
Jaime Altuna Rodriguez	<b>IV Congreso internacional de antropología AIBR: Encuentros, Diálogos y Relatos desde los Sures</b>	Granada
Maria Zapata Hidalgo	<b>IV Congreso internacional de antropología AIBR: Encuentros, Diálogos y Relatos desde los Sures</b>	Granada
Marta Barba Gassó	<b>IV Congreso internacional de antropología AIBR: Encuentros, Diálogos y Relatos desde los Sures</b>	Granada
Olatz Dañobeitia Ceballos	<b>IV Congreso internacional de antropología AIBR: Encuentros, Diálogos y Relatos desde los Sures</b>	Granada
Ione Bretaña Alberdi	<b>XI Congreso internacional y XVI Nacional de psicología clínica</b>	Granada
Miriam Del Pino Molina	<b>IV Congreso internacional de antropología</b>	Granada
Beronika Garrosa Martin	<b>IV Congreso de REEDES de estudios de desarrollo</b>	Kordoba
Marcela Alejandra Garcia Leiva	<b>III Congreso internacional de la sociedad científica española de psicología social y XIV Congreso nacional de psicología social</b>	Cuenca
Laura Muelas De Ayala	<b>IV Congreso internacional de antropología AIBR</b>	Granada
Raul Navarro Mendez	<b>IV Congreso internacional sobre estudios de diversidad sexual</b>	Mexiko

## II Eranskina

ANTOLATZAILEA	JARDUERA	PARTE-HARTZAILEAK
Itziar Irigoien Garbizu	<b>"Gaur8 Aldizkarian Emakumezko Informatikarien Ekarpunen Bilduma"</b>	201
Itziar Villafañez Pérez	<b>"Ekonomia, Enpresa eta Genero III Jardunaldiak: Zoru itsaskorra, kistalezko sabaia" "III Jornadas de Economía, Empresa y Género: Suelo pegajoso, techo de cristal"</b>	167
Miren Ortubay Fuentes	<b>XII Jornadas Interdisciplinares: "Transformando desde el feminismo: Nosotras, protegonistas"</b>	150
Miren Llona González	<b>V Jardunaldiak emakumeak eta historia: "Los tiempos están cambiando", mayo del 68 y el feminismo de la segunda ola</b>	70
Monika Ortueta Aldama	<b>María Sklodowska-Curie, una polaca en París</b>	876
Ander Gutierrez-Solana	<b>La Transversalización de la perspectiva de género en procesos de paz. La Resolución 1325 (2000) del Consejo de Seguridad de la ONU</b>	48
Oihana Carrasón Torrontegui	<b>Imágenes de Poder II: La mujer en las religiones del mundo antiguo. Botere-irudiak II: Emakumeak antzinaroko erlijioetan</b>	35
Nahia Idoiaga Mondragón	<b>M8M - 2018</b>	90
Estibaliz Alonso Ruiz de Erentzun	<b>Masterclass con la cineasta Émile Jouvét. Masterclass del cineasta Lázaro Louzao. Muestra de cortometrajes LGTB</b>	37
Beatriz Onaindia Ruiz	<b>Género e identidad</b>	16
Ana Isabel Ugalde Gorostiza	<b>Jendaurrekoa ikuspegi feministatik</b>	104

Margarita Saenz Herrero	<b>Modalidad diferencial para la igualdad, detección de víctimas de agresión sexual desde un modelo de referencia</b>	141
Amelia Benito del Valle	<b>Arte, literatura eta feminismoa</b>	66
Asier Rufo Gaztelumendi	<b>I. Jornada LGTB+ y comunicación: Historia y presente del movimiento en Euskadi</b>	96
Fernando Bartolome García y Fº Javier Muñoz Fernández	<b>El pensamiento Queer en la cultura visual</b>	100
Ana Luisa Lopez Velez	<b>Sexu-aniztasuna hezkuntza arloan</b>	121
Isabel Bartau Rojas	<b>Género y contexto escolar: claves para la mejora</b>	179
Anna Novikova	<b>Las mujeres refugiadas: análisis del caso de las mujeres saharauis que viven en los campos de refugiad@s</b>	26
Mercedes Arbaiza Vilallonga	<b>Escuela de empoderamiento profesional para alumnas (EmPA)</b>	15
Inge Axpe Saez	<b>A-25 (2018)</b>	509
Mª Jesus Otal	<b>Mi experiencia personal como emprendedora</b>	104
Miren Itxaso Fernandez Astobiza	<b>Emakumeen ikusgaitasuna hedabideetan. Ikus-entzunezko komunikazio eta publizitate saileko VIII. Nazioarteko biltzarra</b>	111
Ana Isabel Ugalde Gorostiza	<b>Telebistako ipuin de-generatuak</b>	125